

# Eliza, jainkoaren eta jainkoaren herriaren etxea

## HASTAPENAK

Kristautasunaren hasieran, tenplua, inguruko erlijioen aldetik, Jainkoaren Etxea edo Jainkoarekin elkartzeko lekua bezala ulertua zen. Ikuspegi honen aurrean, lehen hiru mendetako kristauak ez zuten tenplurik ezta aldarerik ere eraikitzeko beharrianik izan; “ogiaren zatiketa” egiteko biltzen ziren etxe pribatu baten gela batean eta leku honi “Batzarraren etxea” (domus ecclesiae) deitu zioten. Denboraren poderioz, batzartzeko leku hau “ecclesia” deitzen hasi zen. Lehen kristau hauek argi dute euron tenplu eta aldare bakarra, bere izenean batzartzen diren anai-arrebengan egitan dagoen Jesukristo bera dela.

Milaneko ediktuaren (313) ondoren, Inperio osoan sortzen dira komunitaterako beste gabe diren eraikinak. Hauek ez dute tenpluen itxurarik, batzartzeko toki publikoaren antzerakoak baitira, hau dela eta, eraikin publikoen ohiko izendazioa zen “basilikak” deituz. San Agustinek esango du: “Eliza berez deitzen den herria bertan batzartzen denez, basilikari ere deitu ohi zaio Eliza”.

Jabedun etxeak kristau komunitatea batzartzeko beste diren bitartean, hau, etxebizitza pribatuetan batzartzen da; komunitatea gehitzen denean, hau sartzeko bestekoa den eraikin handiago bat bilatzen da, baina kasu batean eta bestean konstante bera dugu: eraikinaren itxurak ez du garrantzirik, batzarra bertan elkartzeko posibilitatea da beti garrantzia duena.

Geroagoko bilakaeran, eliza, santutegia, Jainkoaren etxea izango da Jainkoaren herriaren etxea baino eta, azkenean, inolako kezkarik gabe, “Elizako Etxea” denari “tenplu” hitzez deituko zaio.

II. Batikano Kontzilioaren bidez, eliztarrek liturgian gehiago parte hartzearen aldeko zenbait balore berreskuratu izan dira; Kontziliorako, Eliza, kristau herria batzartzeko ohiko lekua da eta honek bere eragina izan du eliza berriak ulertzean eta zaharrak berregokitzean. arrantzale gehiago bizi bada ere.



Balmasedako San Seberino eliza. Fatxada monumentala du plazarantz orientatuta. "Gablete" esaten zitzaion XVIII. mendeko dokumentazioan. XVIII gehienak.

## TIPOLOGIAK

Bizkaia ez da, elizen tipologiaren aldetik, oso lurralde aberatsa. Hasierako hautaketa egin dezakegu, soilenekin hasi eta korapilotsuenekin amaitzeko.

### Mota zentratuko elizak

Funtsean, azken barrokoan eta neoklasizismoan eraikitzen dira; adibidez, Bariko San Nicolas Bilbon, Andra Maria Bermeon, Gorostizako Andra Maria Nabarnizen, Jainkoaren Jasokundea Ajangizzen, Gure Amaren Jasokundea Larrabetzun eta Gure Amaren Jaiotza Muruetan.

### Basilika motako elizak


Nabe soil batekoak. Garai guztietan eraikitzen dira. Bizkaian ugariak dira tipologia honetako basilizak eta parrokiak, batez ere landa-lurreko aldeetan; adibidez: Igorreko San Kristobal eta Santa Luzia, Zeberion Zeberioanako Gure Ama, Gorlizen Agirreko Elurren Gure Ama, basilizetan eta Gorozikako Gure Amaren Jaiotza, Goikoelexeako Emeterio eta Zeledonio Santuak, parrokiatan.

### Buruan kapera duen nabe batekoak.

Garai guztietakoak ditugu; adibidez, Gure Amaren Jasokundea Ziortzan.



Bilboko San Nikolas eliza. Erdian, kasko kupulaz estalita dagoen espazio handi bat duen eliza da.



Elorrioko Etxebarriako San Agustin eliza luzetarako tentsio handiko habearte basilikal baten motakoa da.

**Gurutzaduradun nabe batekoak.**

Barrokoan eraikitzen dira gehienak; adibidez, Balmaseda eta Gordexolako Klarisen komentuak eta Larreako karmeldarrenak eta Getxo, Arrankudiaga, Lemoa, Bedia e.a.-etako parrokiak.

**Nabe batekoak, beheko kapera eta gurutzadunak.**

Gehienak, errenazimendu eta barrokoan zehar eraikiak; adibidez, Urduñako jesulagunak, Bilboko Juan Santuak, Durangoko San Agustin eta Santa Ana, Bilboko Gizakundea.

**Nabe batekoak, estriboen arteko goiko kaperekin.**

Errenazimenduan, batez ere, eraikiak; adibidez, Ermuko Santiago Apostolua, Ispasterreko San Miguel Goiaingerua, Berriatuako San Pedro Apostolua eta Sopuertan, Mercadilloko Gure Amaren Jasokundekoa eta Carraleko San Martin Gotzaia elizetan.

**Hiru nabe mailatukoak.**

Batez ere gotikoan eraikiak; adibidez, Balmasedako San Severino, Bilboko San Anton eta Portugaleteko Andra Maria.

**Zutabedun saloiko elizak edo**

“Hallenkirche”. Errenazimenduko

berezkoak, adibidez, Bilboko Abandoko San Bixente, Gernikako Gure Amaren Jasokundea, Elorrioko Sorkunde Garbia, Markina-Xemeingo Gure Amaren Jasokundea eta Aulestiko San Juan Bateatzailea.

Giroladun hiru nabekoak. Gotikoan eraikiak; adibidez, Bilboko Santiagoren Katedrala eta Lekeitioko Gure Amaren Jasokundea (nahiz eta kasu honetan oraintsuko gehiketa izan).



Bilboko San Anton eliza. Gotikoa da eta hiru nabe mailakatu ditu.

Abandoko San Bizente eliza. Zutabe edo hallenkirche motakoa da, zutabeen gainean zarpiatutako hiru nabe ditu.

## ELIZEN ESPAZIOAK. HISTORIA ETA ZENTZUA.

**Kalostra.** Patio baten inguruko galeria estali edo arkuduna da, ia beti lauki erakoa, eliza edo monastegi bati atxikia eta funtzio zehatza duena: igandeetako prozesioak egiten ziren lekua da. Kalostrak beharrezkoak dira komentuetan: Bermeoko frantziskotarren kalostra gotikoa, Ziortzako Kolegiatako errenazimenduko kalostra, Markina-Xemeingo edo Larreako karmeldarren kalostrak. Leku hauetan, barnerapen eta pasiatzeko funtzioa ere badute. Parrokietan, prozesioak elizpeetatik egiten dira, nahiz eta kalostra gotiko ederra duen Bilboko Santiagoko katedrala bezalako salbuespenak egon.



Bizkaian klaustro gutxi daude. Espazio karratuak dira eta patio bat inguratzen duten lau panda estaltzen dituzte. Komentuetan, kolegiata eta eliza garrantzitsuetan kabildoarentzat eta beste erabilera batzuetarako balio dute.

**Elizpea.** Osotara edo zati batean irekia, estalia, zutabe edo zutoinez eutsia eta elizari atxikitako eraikina da. Kalea eta elizara sartzeko atearen arteko lekua, elizkizunak izan aurretik eta izan ondoren jendea elkartu eta baita eguralditik babesteko ere. Batzuetan, "hilerria" ere deitzen zaio, elizaren barruan tokirik ez zenean lurperatzeko balio zuelako. Gure elizpetan, sarri askotan, elizateko mahaiak deritzoten harrizko mahai batzuk kontserbatzen dira. Hemen idazten ziren, igandeko meza nagusia eta gero "gurutz geldiko" edo udalerriko batzarrak bertan hartzen zituen erabakiak. Elizpeak ez dira denak itxura berekoak: gure elizetan ugari dira inguratzekoak (adibidez, Larrabetzuko Goikolexeakoa, Arratzuko San Tomasekoa) baina alde bat bakarrik edo bi okupatu zein dorrera mugatuak ere badira.



Durangoko Uribarriko Andre Mariaren elizpea tenpluaren zerbitzurako eraikitako espazio zabala da. Kasu honetan, zurezko grafostatikako lan ikusgarria da.

**Kanpandorreak.** Kanpaiak barruhartzeko balio izan dute. Kanpaien erabilerari buruzko lehen albisteak V eta VI. mendekoak dira; monastegietan erabili omen ziren lehenengoz, monjeak otoitzetara deitzeko; hasieran txikiak ziren eta VIII. mendetik aurrera hasten dira handiak erabiltzen, errenazimenduan dimentsiorik handienak izateraino. Kapitulu garrantzizkoa dira Jainkoaren herriaren etxeko jai-alderdien artean eta euron zeregin hirukoitza betetzen jarrai dezakete: komunitate sinisduna deitu, batzarran ez dauden eliztarrak ospakizunean daudenekin elkartzera gonbidatu eta komunitate sakabanatu osoarentzat otoitz pribaturako uneak gertarazi (Angelusa). Gainera, komunitaterako gertaera garrantzizkoak (jaiak, hiletak, suteak, hondamenak, e.a.) komunikatzen dituzte. Kanpandorreak egitura soilak dira, babesik gabekoak, kanpaiak eusten dituztenak. Kanpandorre-motak desberdinak dira itxuraren eta kanpaietarako oinarri eta baen arabera (Karrantzako San Esteban eliza eta haran bereko beste asko).

Elorrioko Sortzez Garbiaren elizak dorre bat du, sekzio karratuko masta eta gorputz gainjarriak dituena kanpai-geletarako.

Dorreak instalazio korapilotsuagoak dira, ia beti oin karratudunak, gainjarritako solairu edo salekin. Zailagoa da, hitz gutxitan, kanpandorreen motak adieraztea: defentsa zentzuko dorreak, gotikoan (Erandioko Andra Maria, Plentziako Santa Maria Magdalena, Nabarnizeko Andra Maria). Errenazimenduan, orokorrean, beheko aldean trinkoak dira eta goikoan puntu Erdiko arkuak daude kanpaietarako (Mallabiako Jasokundeko Gure Amaren eliza, Arrigorriagako Santa Maria Magdalena, Durangoko Santa Ana, bizkaitar dorre



barrokoekin lotzen dena). Dorre barrokoen artean zenbait aipatzen ditugu (Elorrioko Sorkundearen eliza, Amorebietako Andra Maria, Otxandioko Andra Maria, Bilboko San Anton eta San Nikolas).

**Nabea edo nabeak.** Ospakizunetan parte hartzeko pertsonak dauden tenpluaren barrualdea da. Horma edo zutabekin mugatzen da. Kristautasunaren lehen mendeetan, Elizaren "nabeak" oso zentzu handia zuen. Zenbait idazle eliztarrek, izpirituko eliza, betikotasunaren porturantz zijoan itsasontziarekin konparatu zuten, ontzijabea Aita Eternoa eta lemazain eta kapitaina Jesukristo bere Semea izanik.



Kanpai-horma kanpaiei eusten dien teilatuaren gainean dagoen harrizko egitura simple bat da. San Roque basiliza. Turtzioz.

Eliza baten oina eta ondoriozko espazioaren banaketa, komunitatea kokatu nahi den eraren arabera da. XIX. mendean nagusitu zen banaketan, aldarera begiratzen zuen eskudroi bezala zeuden eliztarrak. Gaur egun, II. Batikano Kontzilioaren ondoriozko arau liturgikoen eraginez, eliztarren parte hartze aktiboa errazten duten xedapenak eman izan dira, ahal denik eta gehien elkartuz, baina nahastatu gabe, "aldarealdea" eta "eliztarrak" okupatu beharreko espazioak. Tenpluen artean, nabe

bakarrekoak edo batzuetakoak, nagusia eta aldamenetakoak, daude.

**Aldarealdea.** Apaizen lekua da; tenpluaren abside edo buruan kokatu eta bertan egoitza, anboia eta aldarea daude funtsean, erretaulak e.a.-eko osagaiak izan badaitezke ere.

**Anboia.** Jainkoaren hitza eta apaizaren hitzaldia aldarrikatzeko lekua da. Oso sorrera goiztarra du kristau elizan eta Biblia irakurri eta komentatzeko errabinoek sinagogetan erabiltzen

zuten pupitre edo estradoan izan dezake sorrera. Anboia kentzearekin batera, pulpituak sortu zen, eskeko fraideek sustatua, hasieran zerupean egiten zuten predikaziorako erabilia eta azkenean elizara sartu zutena, hobeto entzun ahal izateko nabearen erdian jarriz. Jadanik ez zen "hitzaren" lekua, sermoi eta eliztarren debozioetakoa baizik. Anboia ondo ikusteko eran egon behar da, batzarraren ahal denik eta zatirik handiena bere aurrean izanik. Hobe da bakarra izatea, nahiz eta zenbait



Aldarea dagoen lekua presbiterioa da. Ermuan, esaterako, egurrezko erretaula ikusgarri bat dago, barrokoa, zutabe salomondarrez osatutako egitura duena.

Abadiñoako San Trokaz eliza ikusgarria habearte motakoa da eta estribuen artean kapera altuak ditu, zeinak barrurantz begira dauden. XVIII. mendeko barroko estilokoa da.





kasutan bi izataren posibilitatea onar daiteken (adibidez, balore artistiko edo historikoa duten aurretiazkoak kontserbatu behar direnean...). Duen helburua lortzeko, beharrezkoa da ederra, argitua eta, neurri batean, autonomia bezala agertzea.

**Burutzaren egoitza.** Egoitzaren helburua funtzionala da: elizkizun-buruaren eta bere ministroen eserilekua izan eta, aldi berean, burutza duenaren papera indartzea. Basilikako solairuen aintzinako banaketan, absideren hondoa erretserbatzen zuen batzarraren burutzarako, egoitzari handitasuneko itxura emanaz. Ohikoa zen burutzan gotzaia egotea, hori zela eta tronuaren irudia. Kontzilioaren orientabideek, aldarealdearen barruan, egoitza nabetik ez aldentzea aholkatzen dute, anboitik hurbil kokatuz, batzarretik oso aldentuta geratu gabe; hau dela eta, ez da gomendagarria egoitza aldararen atzealdean egotea.

**Aldarea.** Hasieran, aldarea, mahai bat besterik ez zen. Milaneko Ediktuaz geroztik, erromatarren paganismoa hil eginaz doa bere tenplu eta aldareekin eta Jainkoaren mahaia, aldare edo araren kanpoko itxura hartzen hasten da. Jadanik ez dago, mahaia,



San Pedro eliza (Turtzioz). Vatikanoko II. Kontziliotik aldarea aurreratu eta exentu egin zen. Hemen, XVII. mendeko erretaula eder bat dago.

Pulpitua da predikariak fededunengana jotzen duen lekua. Karelez eta itzuleraz osatuta dago, eta presbiterioan dagoen eta irakurketarako erabiltzen den anboitik bereizi behar da.

eskaintza paganoaren aldare bezala ulertzeko arriskurik. Gainera, zenbait ara pagano, aldare kristau bihurtu izan ziren. Neurriei dagokienean, txikiak dira oraindino (ez dira inoiz metro batetik pasatzen), karratuak eta ogia eta ardaoak eusteko baino ez direnak. Erdi Aroan, aldarearen egiazko izaera galtzen hasten da, Jainkoaren afaria ospatzeko izaera funtzionaleko mahaia izateari utzi eta zenbait gai



Erretaularen aurrean aldarea dago, aldarearekin, mezatarako. Gordexolako San Juan de Molinar eliza.

(santuen erlikiak, euron gorpu osoen kutxak, erretaulak, irudiak, sagrarioa...) eliztarren gorpenerako erakusketa-oina izateko aldatuz doa.

Kontzilioaren orientabideen arabera, aldareak, batzar osoaren arreta berez kokatzen den egiazko zentroa izatearen bezain toki garrantzitsua izango du elizan. Jainkozaletasunaren zentroa ez dira irudiak, sakramentua ospatzean burutzen den Kristoren egintza baizik. Aldarea, mahai bat izan eta horretara agertu behar da (aldarea Eskaintzearen Pontifikalak dioenez, lehentasuna, eskaintzako harriaren izaerari baino, Jainkoaren mahaia izateari dagokio). II. Batikano Kontzilioa eta gero, hormatik alhenduta egon behar da, bere inguruan biratzea erraztuz eta elizkizuna batzarrari begira ospatu ahal izateko eran. Bere duintasun eta garrantzia kontutan izanik, aldarean mantendu behar dira kalitate-mailarik onenak.

**Sagrarioa.** Hitzaren liturgia anboian eta egoitzan eta eskaintzaren liturgia aldarean garatzen bada, sagrarioan, espezie sagaratuen bidez Kristoren presentzia gure artean betiketzen duen eukaristiaren sakramentua erretserbatzeko leku berezia izango dugu. Elizan, eukaristiaren

espezieak kontserbatzeko ohitura oso aintzinakoa da. III. menderarte gutxienez, eliztarrek, euren etxeetan gordetzeko ahalmena zuten; jazarketak amaitzearekin batera, ohitura honek galdu zuen bere zentzua. Geroago, IX. menderarte, sakristia antzeko leku batera eramaten ziren, aldaretik gertu eta geroago, aldarearen gainean jarritako pixide batean ipintzen ziren. Jarraian, horman sartutako sagrarioak eta geroago hormatik kanpokoak egiten ziren. XVI. mendean, aldareko mahaiaren gainean ipintzen hasten da, ohitura honek II. Batikano Kontzilioarte jarraituz, sagrarioa, aldare nagusitik, beste aldare batera eramatea izanik aldaketa bakarra, horretara, batzarrari begira meza ematean, sagrarioak eukaristiaren egintza eta apaiza bera estaldu ez egiteko.

Sagrarioa, tenpluaren leku nabarmendua izan behar du, aldarealdearen osagaia nahitaez izan behar ez, ezta aldare baten gainean beti kokatuta egon behar eta arean gutxiago elizkizuna ospatzerakoan kokatu behar ez bada ere. Kontzilioak, eukaristia sakratuaren erretserbarako kapera bereiztu bat eta, ahal delarik, tenpluko nabeari elkartua erabiltzea aholkatzen du.

**Bataiategia.** Bataiatzeko iturria edo harria kokatu eta, ondorioz, bataioaren sakramentua egiten den espazioa da. Hasieran, iturri, ibai edo itsasoko urarekin bataiatzen zen, urperatzearen bidez; geroago, urtegi bat erabiltzen zen bataio-bainurako. VIII. mendean umeen bataioa hedatu zenean, urtegidun bataiategien ordez, elizari gehituriko aldean edo kapera batean, idulki baten gainean ipinitako bataiarri handiengatik ordeztu ziren.

Bataiategiak oso historia aberatsa du gure tenpluetan, denboran zehar kokapen bat baino gehiago izanik. Hauek, bi taldetan laburbil daitezke: hasiera eta sarrerako sakramentua bezala, garbitzeko izaera azpimarratzen duena (bataiategiak elizako sarreratik gertu) edo eskaintza eta sakramentua, aldea eta bataiarria



Elorrioko Sortzez Garbiaren elizak Errenazimentuko Euskal Herriko nerbio trazeria sare garrantzitsuenetako bat du.

lotarazteko irizpide teologikoa jarraitzen duena (bataiarria, aldaretik oso gertu guztion aurrean dago).

#### **Penitentziarako espazioa.**

Penitentziarako berezko lekua aitorlekuak izan dira. Denboran zehar, elizako leku desberdinetan ikusteko ohitu izan gara: kaperetan edo hormetan enpotratuak. Komeni da aitorlekuek sarbideak eta eliztarren zirkulazioa ez eragozte. Gaur egun komenigarria da elizan penitentziarako alde edo kapera bat egotea, isilagoa eta zerbait berezitua, banakako penitentzia bertan administratzeko. Komunitaterako penitentzia-elizkizunak egitearen kasuan,

eliztarren berezko lekua eukaristia ospatzekoa bera da.

**Korua,** abesteko lekua. Aintzinako elizatan, koruaren ohiko lekua nabearen hondoa da: hantxe daude organoa eta koruak. Katedraletan, kalonjeek abesteko, nabearen erdialdean eta monasterioetan aldarealdean egoten ohi da. Liturgia berriztatu zenetik, kokapen honek, oso eliza txikietan ezik, korua eta komunitatea erabat baztertzea suposatzen du. Abesbatz lanbidedunak eta parte hartzerik ez zen aldi bati dagokie. Korua, liturgiaren osagaia denez, aldarearekin eta anboiarekin zerikusi zuzenean egon behar da.



Aulestiako San Juan elizako korua. Atzealdea hartzen du eta kantarietzako harlanduari eta organoari eusten die.

**Kaperak.** Dirudienez, kapera hitza, etxe txikia esan nahi duen “capella”-tik dator, “capella” izeneko eraikin batean frankotarrek jagoten zuten Tourseko San Martinen kapa erdia aipatuz. Kapilaua zen jagolea. Egun, kapera hitzak, eliza eta katedral askotan, eraikin txikia nahi du esan, isolatua edo beste eraikin handiago batean sartua dena. Kaperak, normalean, elizaren perimetroan kokatzen dira, erdikoa baino baxuagoak diren aldamenetako nabeetan, zenbait kasutan elizaren hasierako eraikintzatik eta beste askotan geroago eginik. Kulturako lekuak dira (garai batean, jendaurreko euskaristia ospatu izaten zen beren aldaretan), santu eta anaidiei eskainitako erretaula eta aldarekin, lurperatzeko ere erabiliak izanik. Sarri askotan, burdin hesiz itxi egiten dira.

**Kripta.** Hitz hau, grekoaren ezkutua, ikusten ez dena “cryptos” hitzatik dator. Eliza askotan ez dago. Kripta, lehenagoko eliza edo eraikin bateko



espazio kontserbatua izanik, zolaren azpian egoten ohi da (batzutan, eraikin berrietan ere egon daiteke). Kaperak bezala, erlikiak gurtzeko edo hilobiak gordetzeko erabiltzen dira.

**Sakristia.** Elizari atxikitako espazio edo eraikina, ia beti aldarealdetik hurbil kokatua. Eliz jantziak eta kulturako gaiak gordetzeko lekua bezala, elizetarako beharrezko espazioa da. Era berean, apaizak jantzi eta ospakizunetarako gertatzen diren lekua da.

Urrutitarren kapera San Seberino elizan (Balmaseda). Kaperetan, sarritan, partikularren debozioak izaten dira. Kasu honetan, erretaula errenazentista bikaina da espazio honen buru.

**BIZKAIKO ELIZA BAT. AULESTIKO  
(MURELAGA) SAN JUAN  
BATEATZAILEAREN ELIZA.**

Bere harrietan, espazioetan, eraikinaren bizitzan denboraren iragana somatzen dugun eliza bat hautatu dugu adibidetzat. Ez da garrantzizkoenen artekoa, baina bai Bizkaiko erlijio-ondarearen osagai noblea. Bertan ikus dezakegu aurreko apartatuan deskribatu izan ditugun “espazio” gehien garapena eta arrazoi praktiko, liturgiko e.a.-engatik egindako aldaketak.

Lau tarteko, handia aldamenetakoa baino zabalagoa, hiru nabeko eraikina da, tarte denak eta baita burua ere altuera berean berdinduta. Espazioaren banaketa oso arautua dago, tarte denak berdinak eta aldamenetako nabeak zabalera berekoak baitira. Oso eraikin konpentsatua da, oin bortxatuen baldintzarik gabe lursail lau eta zabalean egina.

Elizaren kanpoko bista. Harrizko eraikuntza masiboa da, oinaldean dagoen arkupe batek aurrez aurre jartzen duena eta plazara ematen duena.



Eliza hau, Bizkaiko “hallenkirche” (eliza aretoa) ederren arteko bat da; tenplu dotore, konpentsatu eta noblea dugu. Bizkaia barruan, parekotasun gehien du Abandoko San Bixenterekin eta kanpoan Arenzana de Abajo eta Pedrosokoekin (Errioxa), Kaskantekoarekin (Nafarroa), e.a.


Tenplura sarbidea, puntu Erdiko pasabidea da, zabala, fatxadan zentratua eta dorre-elizpeagatik babestua. Zoruari dagokionean, azken tartea eta tenpluaren lehen herena eta baita perimetroa eta elizpea ere harlosatuta daude. Gainerakoan, hilobiak egon ziren lekuan, zurezko zolata du.

Elizaren zabalera osoan, oinen aldetik korua dago, azken tartearen erdia inguru okupatzen. Korupea, izarreko sistemaz gangatzen da. Sarbidea kalostre motakoa da, harrizko eskailerakoa, bataiarria moldatzeko balio duena. Koruan, zortzi lekutako ahulkiteri biribila dago, eserileku zirkular neoklasikoekin, Roqués Hnos. 1860. urtean egindako organurako erdian apurtua izanik.

Dorrea, prismatico-laukizuzen oinekora da, alde nagusia elizaren parekoa izanik. Sarrera barrutik da, koruaren

oso gaineratik sala batera; zurezko eskaileraz igotzen da kanpaietarako den goiko salara. Piramideko zurezko armaturaz estaltzen da. XVII. mendeko profiledun bi kanpai ditu, eurotariko bat “Belén” ospetsua, 1865ean dataturiko kanpai txiki bat; 1862ko kanpaitxoa; XIX. mendeko kanpai ertaina eta XIX. mendeko zinbaltxoa. Baita, 1918. urteko erloju bat dago, Muruak Gasteizen eginga. Dorrea, dorre-elizpearen adibide ona da. Elizpea, tertzeletezko gurutzeriko sistema batez gangatzen da. Beste elizpe bat dago, aurrekoarekin lotura gabekoa, hegoaldean bi tarte okupatzen dituena: pilotan jolasteko

balio izan zuen baina egun erabiltzen ez den elizpe itxia da. Sakristia, ekialde-hegoaldetik, buruan kokatzen da. Kanpotik, prisma paralelepipediko soil bat bezala agertzen da, elizakoa baino guztiz beheragokoa. Barrutik, hiru tartetan zatitzen da. Ataburudun pasabidea dago aldarealdera, epistolako nabera bezala. Eliz jantziak gordetzeko kajoitegi nagusi bat du, neoklasikoa, eta beste bat modernoagoa, antzekoa den Erdiko mahaiarekin. Errokoko osteko bi ispilu, gris neoklasiko karezko aguamanila eta armairu eta liburuetarako arasek osatzen dute sakristiako zerbitzua.



Oinplanoa: burualdea, hiru habearte, lau atal eta dorrea oinaldean. Kaperak traxeria izartsuak estaltzen ditu (P.M.V.).

Elizako altzateria, ugaria eta interesgarria da. XVIII. mendearen bigarren erdialdeko erretaula nagusiak, erroko estiloak, tamainuagatik, motaren garbitasunagatik eta apaindurazko osagaien zehaztasunagatik oso mazoneria interesgarria du, une hartan Kantauriko alde honetan bi eskultore kualifikatuena eskulturekin batera. Sei erretaula ditu aldamenetan: Errosarioarena eta San Josearena, 1829koa, aldamenetako nabeen hondoa okupatzen dutenak, San Pedro eta San Rokerenak, 1769koak, alde bietako lehen kaperetan; Bihotz Sakratuarena eta Animena, XIX. mendekoak, alde bietako bigarren tartean. Gainera, XVIII. mendeko Begoñako Gure Amaren mihise bat, bataiategiaren antzeko burdin hesia duen Dolorosaren kapera, XVIII. mendeko Kristo etzanikoaren kutxa batekin, Dolorosaren eta San Juanen irudiak, Quintin de Torre artegilearen Gurutzea daraman Jesusen pasoa, XVIII. mendeko Baratzeko Otoitzaren beste pasoa bat e.a. ...

Ordena doriar erromatarreko zutabe klasikoak. Gangaren atal ezberdinei eusten diete. Ganga hiru habearteetan soilduta dago eta izar-gurutzeria du.



Bataiategia. Bataiategiaren kapera, korura sarbidearen ondoan dago, elizako sarreratik gertu; XIX. mendeko Ereñoko jaspe harriko bataiarri eta burdin hesi neoklasikoaz itxiten da. Bataiategia sarreran kokatzeak, hasi eta sartzeko sakramentu bezala bataioaren garbitasuneko izaera azpimarratzen du. Oraintsu, bataiarria aldarealdearen ondora eraman izan da, Ebanjelioaren aldera, bataioa eta eukaristiaren arteko lotura agertzeko.

Ebanjelioaren aldeko lehen zutabearen, oin oktagonaleko zurezko ahots-gordailua eta guzti dagoen pulpitu zirkularrak, eliztarrengandik hurbil predikatu ahal izateko entzumenezko aintzinako egoerak oroitarazten dizkigu. Pulpitua ez da gaur egun erabiltzen, hitza aldarrikatu eta homilia emateko lekua aldarearen ondoan baitago, Ebanjelioaren aldean.

Kontzilioak liturgia berriztatu zuenetik, aldarea dago egun aldarealdearen erdian eta, lehenago egon zen lekuan, erretaula nagusiaren oinean, burutzaren egoitza dago. Sagrarioa, lehen erretaula nagusian kokatua, aldarealdean dago orain, Epistolaren aldean, oinarri soil sinboliko baten gainean.

Egur polikromatuzko erretaula nagusi rococoa. Erretaula kaskarioaren tipologiaren azpian dago presbiterioaren espazio poligonal osoa.





Penitentziako aldea aldamenetako hormetan dago, alde bakoitzean hiruna, sei aitorleku enpotratuekin, parroki honetan apaiz kopuru handietako denboraldien adierazbide gisa.

#### Eraikitzeko historia

Eguneko tenplua, 1580 hamarkadaren barruan hasi zen egiten. 1593ko bisitaldiak, obrak martxan daudela adierazten du. 1642an amaitzen da dorrea eta 1668an kanpaiak tokialdatzen dira; urte hauetan, korua ere egiten da. Elizak oso historia

korapilotsua du parte hartzaileen aldetik, auziak..., baina, orokorrean, traza berdina jarraitzen da. Estiloa errenazimendukoa da era zorrotzean, kalitate-maila handi batekin. Sakristia ez da sartzen aipatu den prozesuan; XVIII. mendetik aurrera, sakristia hedatzeko beharrianaz insistitzen zen, XIX. menderarte egin ez bazen ere.

Laburpen txiki honek eguneko parrokira hurbiltzen gaitu, kristau komunitatearen bizitzara moldaturiko espazioekin; baina, baita ere, belaunaldi askok sinismena ospatzeko

era ulertzer laguntzen diguten eraikin eta espazio batzuen aurrean jartzen gaitu; gaur eguneko sinisdunok gara sinismen horretako oinordeko eta jarraitzaile.

*Testu hau idatzi duenak ezin izango du inoiz irakurri. 2000ko abuztuaren 3an hil zen. Gion on eta apaiz pairamentsuaren oroimena uzten digu bizi izan zen arteraino.*



Barroko estiloko erretaula nagusiaren aingerutxo batez aurrez aurre dagoen mentsula baten xehetasuna.



Aulestiko San Joan elizako koruko harlanduaren xehetasuna.